



3/2003 GOMENDIOA, URTARRILAREN 29KOA, EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILARI EGINA, BERRIRO AZTER DEZAN SANITARIOA EZ DEN GARRAIOAN JOAN EDO ETORTZEAK ERAGINDAKO GASTUAK ORDAINTZEKO ESKABIDE BATEN UKAPENA, ETA BESTE ERABAKI HAR DEZAN, EGINTZAK GERTATUTAKO UNEAN EGOERA BEREAN ZEUDEN BESTE HERRITAR BATZUEI EZARTZEN ZITZAIZKIEN IRIZPIDE BERBERAK EZARRIZ.

Aurrekariak

1. Interesduna Bizkaian bizi zen, Otxandion hain zuzen. 2002ko otsailean, zenbait errehabilitazio-saio egitera joan zen Gasteizko Txagorritxu ospitalera -hori baitzen bere erreferentziazko osasun-zentroa-, eta sanitarioa ez den garraioa erabili zuen. Zentro horretako informazio-zerbitzuan adierazi zioten Osasun Sailak joan-etorri horietarako laguntzak ematen zituela.
2. Laguntza horiek Osasun Sailak zuzenean kudeatzen dituenek, herritarrek, bizi diren herria zein lurralde historikotakoa den, hantxe bideratu behar dituzte laguntza-eskabideak. Beraz, interesdunak osasun-laguntza Gasteizko zentro batean jaso zuen arren, hurbilago zegoelako, Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzan aurkeztu zuen gastuak ordaintzeko eskabidea.
3. Ukatu egin zioten eskabidea, urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak ez zituela betetzen adieraziz. Jakina, dekretu horrek osasun-laguntzak arautzen ditu.

Gogoetak

1. 63/1995 Errege Dekretuaren ikuspuntutik, ukapena zuzena izango litzateke, izan ere, badirudi ez zirela bete herritarrek osasun-garraiorako eskubidea izateko beharrezkoak diren baldintzak. Hala ere, arrazoiketa horretan bakarrik oinarritutako erantzun batek alde batera utziko luke lehenbiziko aurrekarian aipaturiko beste zertzelada bat: Txagorritxu ospitalean eman zioten informazioa; eta hori ere kontuan izan behar da, kexa hau aztertu behar dugun ikuspegi juridikotik begiratuta.

Gainera, azpimarratu beharra dago informazio hori zuzena zela, Araba Lurralde Historikoan ezarritako irizpidea islatzen zuen eta: alegia, diru-laguntzak ematen direla osasun-laguntza jasotzeko egiten diren joan-etorrien gastuak ordaintzeko, kontuan hartu gabe araudi erregulatzailean ezarritakoa.



2. Zertzelada horiek aztertzean ikusi dugunez, gertakariak jazo ziren unean, egiaz, Arabako osasun-zerbitzuaren erabiltzaile batzuek laguntzak jasotzen zituzten errehabilitazio tratamendua egiteko, eta berdín zion garraio arrunta erabil zezaketen ala ez -horixe da, hain zuzen, 63/1995 Errege Dekretuak eskatzen duen baldintza-.

Beraz, aztertzen ari garen kasuan, horixe gertatzen zen Araba Lurralde Historikoan -Txagorritxu ospitalea han dago- eta horregatik eman zioten informazio hura interesdunari errehabilitazera joan zen ospitalean. Laguntza eskabidea Arabako Lurralde Zuzendaritzan egin izan balu, onartu egingo zioten, baina bere espedientea Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzan bideratu zenez (Otxandion bizi baitzen), atzera bota zioten eskabidea, araudian ezarritako irizpidea erabiltzen delako Bizkaian: hau da, garraio arrunta erabiltzeko aukerarik badagoen ala ez egiaztatzen delako.

3. Erakunde honen iritziz, kexa honetan berdintasun printzipioa errespetatuko bada, egiaztatu beharra dago ea interesdunaren egoera beste zerbitzu-erabiltzaile batzuen bezalakoa den, erkaketa-elementu gisa erabiltzaileok Arabako Osasun Alorrekoak diren ala ez ikusiz, lurralde historikoaz bestelako alorra baita hori.

Interesdunak ezberdin duen gauza bakarra hau da: Otxandio -bera bizi den herria- Bizkaiko udalerrri bat dela, nahiz eta lurraldeko osasun-antolamenduaren ikuspuntutik, Arabako Osasun Alorrean sartuta dagoen, Arabako iparraldea deritzan zonan. Zertzelada hori ezin da erabakigarria izan, baina laguntza ukatzeko arrazoia izan da, eskabidea Bizkaiko Osasun alorreko Lurralde Zuzendaritzak bideratu duelako -interesduna han bizi denez-, eta lurralde horretan, joan-etorriengatik gastuei buruzko irizpidea goian adierazi duguna delako, hau da, 63/1995 Errege Dekretuan ezarritakoa.

4. Osasun-laguntzen antolaketaren ikuspegitik, zera ikusi dugu: kexa eragin zuten gertakarien ondoren, berriz bideratu direla halako egoerak, eta uztailaren 19ko 4/2002 Zuzentarau Orokorra onartu dela, Osasun Sailaren laguntza ziurtaturik duten herritarren gastuak arautzeko (mantenu-gastuak, ostatzekoak eta sanitarioa ez den garraioan egindako joan-etorriek sorturikoak).

Hala ere, kexa zerk sortarazi zuen eta zein momentutan kontuan izanik, Ararteko erakundeak ondorioztatu du onartu egin behar dela (...)k egin zuen eskabidea, osasun-zona bereko beste herritar batzuei egin zitzaizkien baldintza beretan. Horretarako, bi gauza hartu ditugu aintzat: tratu desberdina eman



delako ustea (osasan-zona bereko erabiltzaileak konparaketa-elementutzat hartuta), eta interesdunari eman zioten informazioa (lehen aurrekarian adierazitakoa).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

3/2003 GOMENDIOA, urtarrilaren 29koa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari egina

Berriz azter dadila (...)k egindako eskabidearen ukapena (sanitarioa ez zen garraioan joan edo etortzeak eragindako gastuak ordain ziezazkioten eskatu zuen), eta beste erabaki bat har dadila, gertakariak jazo ziren unean haren egoera berean zeuden beste erabiltzaile batzuei ezarri zitzaizkien irizpide berak ezarriz. Hau da, orduan Arabako osasun-zonako gainontzeko erabiltzaileei eman zitzaien tratu bera eman diezaiotela.